



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2017-09-25

BILERA ZENBAKIA: 42

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Bi neska eta mutil bat

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA
2. ETXEKO LANAK
3. FESTEN BALORAZIOA.
4. AURREKONTUAK LANTZEN HASI.
5. BESTELAKOAK

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA

Ez dago ekarpenik eta onartuta geratzen da.

2. ETXEKO LANAK

- **TIPI TAPA DINAMIZAZIOA ETA HELDUENTZAKO GIMNASIA.**

Tipi Tapa eta helduentzat gimnasia martxan jarriko da Idoia Jakak dinamizatuko du. Honakoa izango da ordutegia.

- Astearteetan 16:00-17:00 Gimnasia helduentzat. 17:00-18:00 Tipi Tapa.
- Hileko azken astearteetan memoria tailerra.
- Hileko azken ostegunetan bingoa.

- **JANARI BANAKETARAKO LOKAL BERRIAREN ARAUDIA.**

Janari banaketa egiteko lokal berriaren araudi berria egiteko planteamendua aurkeztu da, eta huaxen da lehen zirriborroa:

- Onuradun bakoitzak janari banaketako gelako giltza izango du, eta, takila bana. Janaria norberak bere takilatik har dezan.
- Hileko lehen astean (oraingoz asteartea) janari banaketa egingo da,



orain arte bezala Elena arduratuko da, banaketa egiteaz.

- Banaketa egunean bertaratu ezin duenak bi egun izango ditu, janaria bere takilatik hartzeko.
- Takiletan ezingo da janaririk utzi.
- Banaketa gelan kaxa bat egongo da, norberari dagokion janaritik zerbait ez bada nahi, bertan utz dadin. Kaxa horretan den janaria, beste onuradunen artean banatuko da, beharren arabera.

GOIEKI. GENERO INDARKERIAREN INGURUKO INFORMAZIOA.

Genero indarkerien kasuan, Gizarte Zerbitzuetatik ematen diren zerbitzuak herritarrengana gerturatzearen garrantzia planteatzen da, indarkeria egoera pairatzen ari diren emakumeek informazio hori eskura izan dezaten.

Medikunean eta ertzain basean dauden zerbitzu-baliabideen esku orriak jartzea egoki ikusten da, hala ere, Goiekirekin hitz egingo, eta, eskualde mailan, zabalkunderako dauden baliabideak aztertuko dira.

HARRERA EGUNA.

Azken harrera egunean oso pertsona gutxi hartu zuen parte. Urtean bi harrera egitea planteatuta badago ere, jende gutxi agertzen dela ikusita, agian, urtean bat egitea nahikoa dela baloratu da. Datorren harrera egunak urtea amaitu baino lehen beharko luke, eta, ordurako erabaki behar da honekin aurrera jarraitu, edo ekainean soilik egin.

Jose Luisi hurrengo lantalderako erroldatu berrien zerrenda eskatu, eta, dagoen pertsona kopuruaren arabera erabakiko dugu zer egin.

BERDINTASUNA . AURREKONTUA.

Berdintasunerako aurrekontu bat bideratu zen. Oraindik eskuragarri dago aurrekontuaren zati handi bat. Azaroaren 25era begira balkoietan jartzeko puntu lilak eskuratzea erabaki da, aurrekontua eskatuko da horretarako. Mural bat egitea ere planteatu da puntu morearekin. Horrez gain, 2 pankarta egiteko aurrekontua eskatuko da, bat azaroaren 25erako eta martxoaren 8rako bestea.

Ireki geratzen da beste zerbait antolatzeko aukera. Soberan geratzen den dirua beste partida baterako utziko da.

Datorren urteko martxoaren 8ko afarira emakume bertsolariak ekartzea planteatu da, aurrekontua eskatuko da horretarako ere.



3. FESTEN BALORAZIOA

Aurten ere jaietako larunbateko bokata jana ongizateko taldearen ardurapean geratu da eta beste behin, antolaketa ezin hobea eta herritarren erantzun ona medio, balorazio ona egiten dugu.

2017ko JAIETAKO HANBURGESA JANA

OLANO: 250 hanburgesa (Rut)	150 txekorrak 100 oilasko	RUT
GOIERRIKO BARATZA (Jabi)	25 hanburgesa begetal	JABI
PAGOSA (Erkuden)	275 hanburgesa ogi	ERKUDEN
MAKRO (Jabik Ikerri esan)	Tipula potxatua → 1 lata Gazta → 250 lontxa Letxuga → 2 pakete Tomatea → Serbilletak Olio botila Plastikozko guanteak	JABIK IKERRI ESAN
TIKEAK EGIN (Erkuden)		ERKUDEN
JESUS MARI ESKAERA	Sua, bonbona beteak eta txapa, mahaiak, 6 balla	ERKUDEN
LAN BANAKETA	HANBURGESAK EGITEN PLANTX. Maria Teresa + Mikel Gaztañaga MONTATZEN Jabi eta Erkuden TIKEAK SALTZEN Mikel Etxeberria TIKEAK HARTU ETA JENDEA ATENDITZEN Ekaitz eta Marijo Etxeberria OGIA MOZTEN Maider eta bere laguna	
SALMENTA	218 Hanburgesa	872€



4. AURREKONTUA LANTZEN HASI.

Datorren urtera begira zein indar eta baliabide dauden planteatu beharra dago plangintza eratzeko.

Agenda eta aurrekontua finkatu beharra dago. Egutegia aurki aterako da, eta, ordurako data esanguratsuenak finkatu beharko dira.

5. BESTELAKOAK

PELIKULA EMANALDIAK: 2018 urterako berriz planteatu behar da pelikula emanaldien formatoa.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Janari banaketaren araudia	Urriak 23	Gizarte Langilea
Harrera egunerako erroldatu berrien zerrenda.	Urriak 23	Gizarte Langilea
Pankarten aurrekontua	Urriak 23	Erkuden
Azaroaren 25erako zerbait egin nahi den hitz egin	Urriak 23	Erkuden
Banderola lilen aurrekontua- Emakume bertsolarik	Urriak 23	Gizarte Langilea.
Indarkeria Matxistaren gaia Goiekirekin hitz egin.	Urriak 23	Gizarte Langilea.

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, 2017ko azaroaren 20an egingo dugu, astelehena arratsaldeko 6tan Udaletxean.

Gai ordena:

- Aurreko aktaren onarpena
- Etxeko lanen errepassoa
- Aurrekontuen lanketa.
- Hitzaldiak